

11 GIPUZKOA

# Epele ibaia



## Ingurumen-garrantzia

Epele edo Landarbaso ibaia Urumearen adarretako bat da, seguru aski kontserbazio egoera onenetakoa. Uraren eta ibar basoaren kalitate ona

nabarmentzekoa da, non ugari diren haltzak, lizarrak eta haritzak, batzuk neurri handikoak. Aipatzekoa ibilguan pilatutako egurra, zeinek ibaiaren

paisaia aniztasunaz gain, lurreko eta aireko fauna anitza ahalbidetzen duen.

ura

URAREN  
EUSKAL  
AGENTZIA

AGENCIA  
VASCA  
DEL AGUA

→ 2,7 km

🕒 55 min | 🚶



Udalerrria:  
**Hernani**

Hurbileko herria:  
**Epele**



Ibaia:  
**Landarbaso / Epele**



Ingurunea ez dago arriskuetatik kanpo



↑ 86 m

↗ 108 m

↓ 19 m

↘ 37 m



**EPELE  
IBAIA**

# Epele ibaia



Non dagoen eta nola heldu

Epele edo Landarbaso ibai tarteak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren ipar-ekialdeko muturrean dago, Donostialdea eskualdeko Hernani udalerriko lurretan.

Hara heltzeko, A-1etik hasi eta Hernanirako GI-2132an desbideratuko gara.

Ondoren, Epele Bailara-rako bidea hartuko dugu Industria-eremuraino; bertan dago, esaterako, "Hernaniko Elektrokimika" enpresa.


Hernaniko Elektrokimika eremua eskuinean utzita, lehenengo bidebanatzea hartuko dugu eskuinera hori ere, eta 700 bat metro errepidean egin eta pista batean sartuko gara 2 kilometroan zehar. Hormigoizko pistari jarraituko diogu Añuaberri baserria eskuinean utzita eta Aiako Harria Natura Parkearen bidebanatzea hartuko dugu.

Baso hostogalkorrean barna doan pistari jarraituko diogu ibaiaren parean, Otsazulueta adierazten duen punturaino.

Norabide horri jarraitu eta 25 metrora ibai zeharkatzen duen egituratik hasten den bidexka bati ekingo diogu.

Hor hasten da ibai ibilbidea, ibar baso eder baten magalean. Pasiera lasaigarria egingo dugu uraren xuxurlaren eta ibarreko txorien kantuen artean.

Edozein urtarotan egin daiteke ibilbidea, baina apirilean, maiatzean eta ekainean aurkituko dugu ibar basoa ederren.



Deskargatu ibilbidea:



KML





GPX

Ezagutu ibilbide guztiak hemen:





Wikiloc

# Epele ibaia



# Epele ibaia



# Epele ibaia

